

**“FÉLIX MENCHACATORRE”
MIKROKONTAKIZUNEN
XIV. NAZIOARTEKO UNIBERTSITATE LEHIAKETA**

Félix Menchacatorre, USACeko arima eta UPV/EHUko irakaslea –maisua-, 2008ko abuztuan hil zen bihotzekoak jota. Bihotzak huts egin zion aldi bakarra izan zen ordukoa.

University Studies Abroad Consortium-ek (USAC) eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU), “Félix Menchacatorre” **Mikrokontakizunen XIII. Nazioarteko Unibertsitate Lehiaketa** antolatu dute, honako Oinarri hauen arabera:

OINARRIAK

1.- Parte hartu ahal izango dutenak:

- a) 2024ko udazkenari dagokion lauhilekoan USACen edozein programatan ofizialki matrikulatutako ikasleak.
- b) UPV/EHUko AZPko (Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala) eta Iiko (Irakasleak eta Ikertzaileak) zeinahi kide edo 2024-2025 ikasturtean UPV/EHU ofizialki matrikulatutako zeinahi ikasle.
- c) Ezingo dute parte hartu, inola ere, **“Félix Menchacatorre” Mikrokontakizunen Nazioarteko Lehiaketako** aurreko edizioetako irabazleak.

2.- Gaia librea izango da.

3.- Ezinbestekoa da mikrokontakizunari izenburua jartzea.

4.- Hizkuntzaren literatura-kalitatea bereziki balioetsiko da.

5.- Lehiaketaren deialdia hiru modalitatetan egingo da: gaztelania, euskara eta ingelesa.

6.- Mikrokontakizunak gaztelaniaz, euskaraz zein ingelesez idatzi ahal izango dira, egilearen herritartasuna zeinahi izanik ere. Kasu bakoitzean, mikrokontakizunek gaztelania, euskara edo ingeleseko modalitatean parte hartuko dute lehiaketan.

7.- Lehiakide bakoitzak modalitate bakarrean hartu ahal izango du parte. Eta lehiakide bakoitzak mikrokontakizun bakarra aurkeztu ahal izango du.

8.- Mikrokontakizunak originala eta argitaragabea izan behar du, eta ez da onartuko beste literatura-sari edo -lehiaketatan saritutako kontakizunik.

9.- Mikrokontakizunek, gehienez ere, 2.000 karaktere digital izan beharko dituzte. “Times New Roman 12” letra-tipoa erabiltzea eta lerroarte bikoitza uztea gomendatzen da.

10.- Lehiatuko diren mikrokontakizunak posta elektronikoz bidali beharko dira, fitxategi digitalean; hain zuzen, juan.delacruz@ehu.es helbidera.

Mezuaren “Gaiari” haxe idatzi beharko da: “Mikrokontakizunen Lehiaketa”.

11.- Kontakizun guztien amaieran honako datu hauek idatziko dira: egilearen izen-abizenak; Nortasun Agiri Nazionalaren, Pasaportearen edo dokumentu ofizial baliokideren baten zenbakia; posta-helbidea; posta elektronikoa helbidea; telefono-zenbakia; karaktereen zenbaketa (espazioak barne); eta zer USAC programatan edo UPV/EHUren Ikastegitan dagoen matrikulatuta. Edo AZP eta Ilen kasuan, UPV/EHUko zer Ikastegitan/zerbitzutan diharduten lanean.

12.- **2024ko azaroaren 29an** amaituko da lanak aurkezteko epea. Ez dira onartuko mezu elektronikoa bidali den data geroagokoa duten mikrokontakizunak.

13.- Bostehun amerikar dolarreko (500\$) sari bakarria izango da modalitate bakoitzerako: gaztelania, euskara eta ingelesa. Banku-transferentzia bidez helaraziko zaio saria irabazleari. Modalitate bakoitzeko Epaimahaiak dagokion saria eman gabe utzi ahal izango du.

- 14.- 2024ko abenduko lehenengo hamabostaldian erabakiko da zein den epaia. Eta UPV/EHUko web-orrian (<http://www.ehu.es>, “Nazioarteko Harremanak” arloa, USAC esteka) argitaratuko da 2024ko abenduaren 20a baino lehen. Irabazleei ere jakinaraziko zaie.
- 15.- Aipatutako web-orri horretan argitaratuko dira, halaber, mikrokontakizun irabazleak. Gainerakoak, berriz, txikitu eta desagerrarazi egingo dira.
- 16.- Mikrokontakizun irabazleen egileek antolakuntzaren esku utziko dituzte jabego intelektualeko eskubide guztiak, legeak baimendutako gehieneko denboran.
- 17.- Modalitate bakoitzerako Epaimahai bat egongo da (gaztelania, euskara eta ingelesa); hain justu, USACeko edo/eta UPV/EHUko irakasle entzutetsuek osatutakoa. Ingeleseko modalitatean, USACeko ikasle ohi bikain batek ere parte hartuko du Epaimahaian.
- 18.- Hiru Epaimahaietako kideek malgutasunez interpretatuko dituzte honako Oinarri hauek. Bertan aurreikusi gabeko zeinahi kontu modu askean eta atzera bueltarik gabean ebatziko dute. Epaimahaien erabakiak apelaezinak izango dira.
- 19.- **“Félix Menchacatorre” mikrokontakizunen XIV Nazioarteko Unibertsitate Lehiaketan** parte hartu nahi izanez gero, ezinbestekoa da honako oinarri hauek erabat onartzea.